



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus



ZALDIBIAKO UDALAREN TELEKOMUNIKAZIOAK IZARKOMERA PASA DITUGU, PAUSO HONEN BIDEZ TELEKOMUNIKAZIO BURUJABETZARA BIDEAN URRATSAK EMATEN HASI GARA

Azken hamarkadetan, Telefonika/Movistar edo Euskaltel bezalako telekomunikazio sareak publiko izatetik, nola pribatizatu diren ikusi dugu. Diru publikoaren bidez telekomunikazio azpiegiturak sortu mantendu eta ondoren esku pribatutan utzi izan dira jabetzak hauek.

Telekomunikazioen oihan globalizatu honetan jaio zen IZARKOM Euskal Herriko Telekomunikazio Operadore kooperatiboa. Zaldibiako Udalak gertutik jarraitu du bere ibilbidea eta gaur da eguna esan dezakeguna telekomunikazio gaietan gure erreferente eta hornitzaile bihurtu direla. Euskal Herrikoa, Kooperatiboa, Irabazi asmorik gabekoa, Euskalduna, ... osagai guztiak ditu herri proiektu honek gure nazioaren eraikuntzarako.

Azken urteetan, Zaldibiako Udalak hilabetero 1600€ baino gehiago ordaintzen zizkion telefono eta internet zerbitzuagatik hornitzaile ezagun bati. Abuztutik aurrera 600€ inguru ordaintzera pasa gara. Gainera zerbitzua zabaltzeko aukera eman digu aurrezte honek. Internet konexioa Antzoki nahiz frontoira eramateko aukerari ateak zabalduz eta Wi-Fi gune libreak eskaintzeko aukera izanaz.

2022ko uztailean egindako osoko bilkuran aho batez onartu zen Zaldibiako Udala Izarkom kooperatibako bazkide erabiltzaile izatea.

Hau honela izaki zaldibitar guztioi deia luzatzen diegu telekomunikazio erreferente gisa har dezaten Izarkom, eman pauso bat aurrera telekomunikazio burujabetzarantz.

Zaldibian, 2022ko irailaren 16an.